

Saiakera honen zioa, Antwerpeko Unibertsitateko Patricia Popelier irakaslearen “Azpiestatuak eta Europar Batasuna: estrategia konstituzionalak” hitzaldiaren azterketa bat egitea da. Alegia, Europar Batasuna bilakatu den maila anitzeko harreman sistemarengan, azpi-estatu izaerako erregio errealtateek duten eragina aztertzea, Europar Batasun mailan euren posizioa finkatzerako orduan.

Giltza-Hitzak: Europar Batasuna. Erregioak. Partehartzea. Ikuspegi unitarioa. Ikuspegi federala. Ikuspegi konfederala. Euskadi.

El objeto de este ensayo es realizar un análisis de la conferencia “Subestados y la Unión Europea: estrategias constitucionales” de la profesora de la Universidad de Amberes Patricia Popelier. Es decir, analizar qué incidencia tendrán las realidades regionales en forma de subestados en el sistema de relaciones a múltiples niveles en el que se ha convertido la Unión Europea, a la hora de establecer la posición de las mismas dentro de la Unión Europea.

Palabras Clave: Unión Europea. Regiones. Participación. Perspectiva Unitaria. Perspectiva federal. Perspectiva confederal. Euskadi.

Le but de cet essai est une analyse de la conférence «Sous-états et l'Union Européenne: stratégies constitutionnelles » de la professeure à l'Université d'Anvers Patricia Popelier. À savoir, d'analyser l'incidence que les réalités régionales auront sur la forme de sous-états dans le système de relations à plusieurs niveaux dans lequel est devenu l'Union Européenne, à l'établissement de la position de celui-ci au sein de l'Union Européenne.

Mots-Clés : Union européenne. Régions. Participation. Perspective unitarienne. Perspective fédérale. Perspective confédérale. Euskadi.

Erregio errealitateen papera European

(The role of regional realities in Europe)

Aranbarri Urzelai, Asier

Deustuko Unibertsitatea. Gizarte eta Giza Zientzien eta Zuzenbide Fak.
Unibertsitate Etorb., 24, 48007 Bilbo
a.aranbarriurzelai@deusto.es

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-277-0 (2016); 82-100]

1. Sarrera

Lan honek bere jatorria, apirilaren 20an, Gasteizen, Eusko Ikaskuntzak eta Eusko Jaurlaritzak antolatu zuten “Euskal Autogobernuaren etorkizuna: ereduen azterketa eta dimentsio europarra” jardunaldian du.

Gaia ikuspegi bikoitzetik aztertu asmoz, akademikoa eta politikoa alegia, antolatu zen jardunaldi honetan, besteak beste, Antwerpeko Unibertsitateko Patricia Popelier irakasleak parte hartu zuen “Azpiestatuak eta Europar Batasuna: estrategia konstituzionalak” hitzaldia emanaz.

Horrela, saiakera honen zioa, hitzaldi honen azterketa bat egitea da, bere objektu nagusian sakonduz. Alegia, Europar Batasuna bilakatu den maila anitzeko harreman sistemarengan, azpi-estatu izaerako erregio errealitateek duten eragina aztertzea, Europar Batasun mailan euren posizioa finkatzerako orduan. Eusko Ikaskuntzaren, jardunaldi honi buruzko web orriak, ondo jasotzen duen moduan.

Gai garrantzitsua da zalantza izpirik gabe, estatuak, bilakatzen baitira, Patricia Popelier irakaslearen hitzetan, azpi-estatu hauen eta Europa Batasunaren arteko harremanen “zaintzaile”, kasu askotan azpi-estatu hauen autonomia mugatuz.

Honetarako Patricia Popelier irakaslea, hiru kasutan oinarritzen da, azpi-estatuak eta Europar Batasunaren arteko harremanak aztertzerako orduan: Erresuma Batua, Alemania eta Belgika.

Azterketaren adierazle gisa berriz, ondokoak erabiltzen dituelarik. Lehenik, Europar Batasuneko Itunen onarpen eta berrikuspenean erregio errealitateek duten parte-hartzea. Bigarrenik erregio hauen parte-hartze zuzena Europar Batasuneko Ministro Kontseiluetan eta hirugarrenik, errealitate erregional hauen harremana subsidiaritate printzipioarekin.

Aipaturiko hiru kasuetan oinarritutako errealitateak aurreko adierazleen baitan aztertzean, Patricia Popelier irakasleak hiru estatu estrategia daudela ondorioztatzen du:

Ikuspegi unitario edo zentralista: Erresuma Batua, non adierazle guztiak Gobernu estatalaren esku dauden.

Ikuspegi federala: Alemania, non azpi-estatu izaerako erakundeei, hauek elkarren artean eta estatuaren arteko negoziaketetan oinarritutako harremanen baitan, parte-hartze aktibo maila handiagoa aurrezagutzen zaien.

Ikuspegi konfederala: Belgika, non azpi-estatu izaerako entitateen parte-hartzea ezinbestekoa den, hauek izan dezaketen beto eskubiderarte¹.

Patricia Popelier irakaslearen ustetan, Alemania izan daiteke lankidetzara maila estuena eta integratuena eskaintzen duen formula, nahiz eta ez dion ondo erantzuten *Länder*-en arteko gerota desberdintasun handiagoari. Belgikak berri, konfederazio sistemaren parte diren erakunde desberdinen arteko lankidetzara eskuago batera joan beharko luke bere hitzetan.

Horrela, Patricia Popelier irakasleak egiten duen gogoeta, ondoko galderaren erantzuna izango litzateke: azpi-estatu izaerako erregio errealitate hauek ba al dute boteretik Europar Batasunarekiko harremanean euren posizioa zehazteko?

Galdera honi erantzun asmoz, lehenik eta behin Europar Batasuneko Zuzenbideak azpi-estatu hauengan duen eragina aipatzen du. Politika ekonomiko, sozial eta ingurumenekoen ikuspegitik, besteak beste. Adieraziz, zuzenbide honek, politika hauengan eragin zuzena duela zentzu negatibo zein positiboan. Negatiboan, azpi-estatu hauek ezin dituztelako Europar Batasuneko Zuzenbidearen aurkako erabakiak hartu eta positiboan beraiei dagokielako zuzenbidea hau, bereziki direktibak aplikatzea.

Jarraiko galdera ondokoa delarik: kontutan izanik erregio izaerako azpi-estatu hauek zuzenbide europarraren aplikazioan duten papera, ea paper hori mantentzen duten zuzenbide hori sortzeko prozesuan.

Eta honetarako, aurrez adierazi dugun moduan, ondoko adierazleak erabil-tzen ditu. Lehenik, Europar Batasuneko Itunen onarpen eta berrikuspenean erregio errealitateek duten parte-hartzea. Bigarrenik erregio hauen parte-hartze zuzena Europar Batasuneko Ministro Kontseiluetan eta hirugarrenik, errealitate erregional hauen harremana subsidiaritate printzipioarekin.

Horrela, Patricia Popelier irakasleari jarraituz adierazle hauen araberrako azterketa egiten hasi aurretik, Enoch Alberti Rovira irakasleak gai honen inguruan diotenean erreparatuko dugu, tartetxo batean.

Irakasle honen ustez eta planteamendu orokor gisa, Europar Batasuneko kideak Estatuak dira eta gisa honetako unitate moduan dira hartuak, Europar Batasuna eraikitzen orduan. Hala nola, Batasuneko erakunde eta organoen konposaketara edo Batasuneko itun eratzaileen berrikuspenean prozedura.

Edozein kasutan ordea, gaia erabat zailtzen da Estatu kideak barne egituraketa konposatu edo konplexu bat dutenean. Non lurralde boterea modu bertikal

1. CETA akordioa (Comprehensive Economic and Trade Agreement) ezin duela sinatu esan du Belgikak. Europar Batasunak eta Kanadak bertan behera utzi dute bi lurraldeen arteko merkataritza ituna (CETA) sinatzeko gaurko iragarritako zegoen goi-bileran, Walonia eskualdeko Parlamentuak akordioari betoa ezarri ostean. EITB, 2016/10/27. (<http://www.eitb.eus/eu/albisteak/mundua/oso/4464139/ebk-eta-kanadak-utzi-dute-ceta-sinatzeko-goibileran>).

zein horizontal batetan dagoen banatua erakunde lurraldetar desberdinen artean, eurak denak, estatu izaera batekin eta jatorri berdineko botereekin.

Estatu tipo honetan (Alemania, Austria, Belgika, Italia eta Espainia) eta partzialki bada ere Portugal (Azores eta Madeira), Finlandia (Aaland Irlak) eta Erresuma Batua (Eskozia nagusiki) gehitu behar zaizkion, ezin da esan, ordezkaritza boterea erakunde zentralari bakarrik dagokionik eta ezta ere Estatuaren borondatea, erakunde zentral honen baitan bakarrik eratu behar denik ere eta ondorioz, hau izan behar denik borondate honen berri emango duen bakarra.

Puntu honetan gorako faseaz ari gara (berako fasearen aurrean, alegia, zuzenbide europarreko arauen exekuzioari buruzkoa), hau da, zuzenbide europarra- ren egitea.

Nagusiki Ministroen Kontseiluaren bidez Estatuak parte hartuz, egiten dena. Zeina, ez dagokion, modu natural eta ezinbestekoan gobernu erakunde zentralari. Bereziki, Europar Batasuneko gaien bame jatorriko eremuaz jabetuta, nazioarteko harremanen eremuari kontrajarriz, erregio mailako erakundeek asko esateko dutenean.

2. Erregio errealtateen partehartzearen oinarriak

2.1. Oinarri konstituzionalak

Parte-hartze hau ez da bakarrik ulertu behar erakunde zentral eta erregionalen arteko lankidetzan moduan, segidan ikusiko dugun moduan Erresuma Batuarekin gertatzen den eran, baizik eta printzipio konstituzional gisa.

Zeinaren zentzua eta arrazoa, integrazio europarraren prozesuaren aurrean, bame botere lurraldetarren arteko oreka konstituzionala mantendu premian egongo litzatekeen.

Parte-hartze eraginkorren printzipioaren baieztapenak printzipio konstituzional gisa, ondorio nabarmenak ditu bere galdagarritasunari dagokionean (bere kasuan, bide jurisdikzionalari begira) zein bere alderdi operatiboari dagokionean (mekanismo eta prozedura formal eta eraginkorren bidez).

Baieztapen hau, Espainia mailan oso ohikoa izan ez dena arren, horrela izan da Europar Batasuneko hainbat Estatu konposatuetan, kasuko, segidan aztertuko ditugun Alemania eta Belgikan bereziki, zeintzuek, beste batzuren artean, parte-hartze eraginkor hau euren testu konstituzionaletan jasotzen duten.

2.2. Oinarri europearrak

Orokorrean eta oinarrian, errealtate erregionalen parte-hartzeak Estatu bakoitzaren barneko justifikazio konstituzionala duen (Europar Batasunak gai hauek, bame botere lurraldetar banaketaren sistema alegia, autonomia instituzionalaren printzipioaren baitan, Estatu bakoitzaren “barneko gai” kontsideratzen dituen²), badaude

2. Azken adibidea, Italiako erreforma konstituzionala dugu non italiarren gehiengoak erreforma honen aurkako hautua egin ostean, Europar Batasuneko buruzagaiek Italiaren “barneko gaitzat” hartu du, bere...

Europar Batasunaren sistematik eratorritako faktore batzuk, eremu europarrean bertan, egitate erregionala kontsiderazioan hartzera bultzatu dutenak.

Ondokoak izango lirateke nabarmenenak: (1) barne antolaketa konposatu edo konplexua duten hainbat Estaturen egotea, (2) europar politiken ezarpen eraginkor bat gauzatzeko arrazoiak, (3) erregioen papera integrazio europarraren mesedetan eta (4) erakunde erregional batzuren (Espainiako Erkidego Autonomoak eta bereziki Alemaniako *Länder*-ak) populazio eta pisu ekonomiko handiagoa, Europar Batasunean azkena sartu diren hainbat Estaturekiko (bereziki herrialde baltikoak).

2.3. Zeharkako partehartzea (edo estatu bidezkoa) eta partehartze zuzena Europar Batasunean

Aurrez esan bezala, Estatu bakoitzaren subiranotasunaren edo autonomia instituzionalerako printzipioarekin bat, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak esan du “cada Estado miembro es libre de atribuir como juzgue oportuno las competencias en el plano interno y de aplicar una directiva por medio de medidas adoptadas por las autoridades regionales o locales”. Alegia, Estatu bakoitzeko errealitate erregionalen parte-hartzea, Estatu kide bakoitzaren sistema konstituzionalari dagokio. Alegia, barneko gai bat da.

2.4. Errealitate erregionalak Lisboako Itunean

Lisboako Itunak erregioei egiten dizkion aipuak, Itun Konstituzionalean dute bere jatorria eta ondoko hiru oinarriko norabideetan lerrokatu daitezke:

a. Erregioen zeharkako aurrezagutza (intentsitate baxukoa) Europar Batasuneko Itunean

Horrela Europar Batasuneko Itunak ondokoa dio “La Unión respetará la igualdad de los Estados miembros así como su identidad nacional, inherente a las estructuras fundamentales políticas y constitucionales de éstos, también en lo referente a la autonomía local y regional”.

Zentzu honetan eta ondorioz operatiboagoa bilakatzen ari da erregioen ahalmena subsidiaritate eta proportzionalitate printzipioen kontrolaren eremuan.

Gainontzean, badaude aurrezagutza singularrago batzuk erregio batzuren mesedetan, bereziki *Länder* alemaniarrei dagokionean.

b. Erregioen partehartzearen oinarriko menpekotasuna estatu bakoitzaren barne erabakira

Horrela, nahiz eta autonomia instituzionalaren baitan Estatu kide bakoitzari dagokion, bere barne eremuan, Europar Batasunera begira errealitate erregionalak izan

...eragina Europar Batasunaren gain mugatze aldera (http://euroefe.euractiv.es/5874_finanzas/4199046_la-ue-insta-a-italia-continuar-con-las-reformas.html).

dezaketen parte-hartzea eraentzea, egia da, Lisboako Itunak, aurreikusten duela, gorako faseari dagokionean behintzat, zuzenbide europarra sortzeari dagokiona alegia, errealitate erregionalek Europar Batasuneko erakundeetan zuzenean parte-hartzea.

Lau direlarik parte-hartze zuzenerako eremu bananduak.

Lehen hiruretan, Batasunak, parte-hartze marko potentzial bat bakarrik eskaintzen du, non azken erabakia Estatuak duen.

Laugarrenak berriz, bere funtsa Europar Batasunean du.

1. Ministro Kontseiluan parte-hartzea.

Dagokion formularen bidez, erregioek posible dute ordezkartzaren burutza hartzea, Modu argiago batetan zehazten delarik ordezkartzaren eta botoaren batasuna.

2. Garaizko alertaren prozedura.

Prozedura honen bidez, izaera erregionaleko Legebiltzarren parte-hartzea arautzen da dagokion Estatu mailako Legebiltzarrean, Europar Batasunarekiko arautegiaren aurrean, irizpen bidez gauzatzen dena, iritzia eman eta posizioa fin-katu ahal izateko. Suisidiarietate eta proportzionaltasun printzipioak ezartzen diren protokoloan diseinatua, Lisboako Itunaren berrikuntza nabarmenenetarikoa da.

3. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean helegiteak tarteratzeko ahalmena.

Helegite aukera hau irekitzen zaie instantzia erregionalei, beti ere dagokion Estatuaren bidez, bereziki, Europar Batasunaren jardueran, subsidiariedade eta proportzionaltasun printzipioen betetze kontrolaren eremuan.

4. Batzordearen "kontsulta zabalak".

Horrela, "kontsulta zabal" hauetan, Batzordeak, Lisboako Itunaren mandatuarekin bat, eragile erregionalen iritzia ere kontutan izan behar du.

d. Erregioen komitearen jarraipena, errealitate erregionalen parte-hartze erakundetuaren oinarrizko bide gisa Europar Batasun mailan

Lisboako Itunak, Komite honen ahalmenak zabalitzen ditu, bereziki Europar Batasuneko Justizi Auzitegiaren aurrera jotzeko legitimazio zuzena ezagutuz, Europar Batasuneko Itunaren baitan, jarduera legegileak burutzerakoan, Komite hau kontsultatzea beharrezkoa denean.

Enoch Alberti Roviraren hitzen bidez marko erreferentziala zehaztu ostean, berriro Patricia Popelier-ek aipaturiko jardunaldietan esanikora itzuliz, honek Europar Batasuna maila anitzeko gobernu eredu moduan zehaztu ondoren, bere barnean josten diren era askotariko zeharkako harremanek, Europar Batasunari izaera erabat dinamikoak ematen diotela nabarmentzen du.

Estatu konposatu federalak izan daitezkeena baino askoz ere dinamikoagoa hain zuzen ere.

Europar Batasun barruan lurralde botere maila desberdinen arteko harremanak era askotarikoak baitira. Tarteko, lan honen xede diren azpi-estatu eta Europar Batasunaren arteko harremanak. Maila anitzeko errealitateen arteko

harreman zeharkatu hauek ematen diotelarik Europar Batasunari, maila anitzeko gobernu eredu zeharo orijinalaren izatea.

Jarraian Patricia Popelier irakasleak azpi-estatu hauen eta Europar Batasunaren arteko harremanak aztertzen ditu aurrez aipaturiko hiru perspektibetatik: (1) Europar Batasuneko Itunen onarpen eta berrikuspenean erregio errealitateek duten parte-hartzea; (2) Erregio hauen parte-hartze zuzena Europar Batasuneko Ministro Kontseiluetan eta (3) Errealitate erregional hauen harremana subsidiaritate printzipioarekin.

Adierazle hauen azterketa berriz, Europar Batasuneko kide eta sostengu diren nazio-estatuaren ikuspegitik egiten du, nazio-estatu hauek, euren barne antolaketa dagokionean hiru nazio-estatu motetan sailkatuz: estatu unitario edo zentralistak, estatu federalak eta estatu konfederalak eta hauen adibide eta ondorengo hurrenkeran Erresuma Batua, Alemania eta Belgika aztertuz, Europar Batasunarekiko harremanean euren konstituzio estrategiei dagokionean.

Horrela, eta lehen hurbilpen batetan, estatu unitario edo zentralistek eta kasuan Erresuma Batuari, dagokionean, estatuak, azpi-estatuak kontsultatzen duen arren, Europar Batasunera begirako posizionamendua finkatzeko negoziaketetan parte-hartuz, Europar Batasunarekin harreman guztiak estatuak bideratzen ditu.

Estatu federalei eta kasuan Alemaniari dagokionean berriz, Patricia Popelier irakasleak “compensation through participation” esamoldea erabiltzen du.

Ulertaraziz, azpi-estatuak Europar Batasunaren mesedetan galtzen duten autonomia, konpentsatua dela, azpi-estatu hauek Alemaniak, nazio-estatu gisa, Europar Batasunarekiko duen posizioaren eraikuntzan parte-hartuz.

Honetan, Alemaniako senatuak, *Bundesrat* deitzen denak, *Länder*-en parte-hartze politiko organoak alegia, duen pisua azpimarratzen duelarik modu berezi batean.

Azkenik, estatu konfederatuei dagokionean, Belgika kasu, errealitate erregionalak guztiz uztartuak daude Europar Batasunera, hauen parte-hartzea azken honetan zuzena delarik, kasu batzuetan beto eskubidea barne³.

Azterketan sartuz, lehen adierazlea Europar Batasuneko Itunen onarpen prozedura izango litzateke.

Patricia Popelier irakasleak ondorengo eran laburbiltzen duena: “Look member state, I don’t know if you need the approval of substates or not, I really don’t care, just do it according to your procedures”.

Alegia, Europar Batasunak, Estatu bakoitzaren barne kontutzat jotzen du, Estatu bakoitzak Europar Batasuneko Itunak onartzeko jarraitzen duen prozedura. Europar Batasunarekiko arduradun bakarra Estatu bere horretan delarik, Europar Batasunaren kide “bakar” gisa.

Ondorioz, aztertu beharreko, ondokoa izango da: Europar Batasuna osatzen duten Estatuak, euren barne botere lurraldetar banaketa ereduaren arabera zein den Europar Batasuneko Itunak onartzeko jarraitzen duten prozedura.

3. Aurrez aipatu dugun Waloniaren eta CETA Kanada eta Europar Batasunaren arteko akordioa kasuko.

Ikusi ahal izateko, azpi-estatu diren errealitate erregionalek zeresanik baduten edo ez (aipatutako Waloniaren beto eskubidea tarteko), Estatuak, Europar Batasuneko Itunak onartzerakoan.

Bigarrena berriz, azpi-estatu hauek Europar Batasuneko Ministro Kontseiluan duten parte-hartzeari buruzkoa da. Gai honi dagokionean, Europar Batasunak, Estatu kideak hala nahi izanez gero, ahalbideratzen du azpi-estatu hauetako ordezkariak, ministro mailako bilera hauetan parte-hartzea. Bakarrik zein ordezkari misto baten bidez. Estatu kide bakoitzaren esku dagoelarik, hau horrela gauzatzea edo ez.

Hirugarrenik, subsidiaritate eta proportzionaltasun printzipioen eta bere ezarpenari dagokionenean, Estatuak, euren legebiltzarren bitartez, garaiko alerta sistemaren baitan, subsidiaritate eta proportzionalitate printzipioen ezarpena galdatu diezaiokete Europar Batasuneko Legebiltzarrari bere lege jardunean.

Ondoko eran laburtzen du egite hau Patricia Popelier irakasleak: "Look, you cannot make this into a law because it is contrary to the subsidiarity principal".

Jarraiko kontua izango da Estatu bakoitzeko legebiltzarrekiko, Estatu horretako azpi-estatuaren legebiltzarrek subsidiaritate eta proportzionalitate printzipioen ezarpena galdatzeko duten ahalmena.

Hauxe izango da hirugarren adierazle honen bidez aztertuko dena. Bide honetatik, Patricia Popelier irakaslearen hitzetan, Estatu konposatu batzuetan, bigarren ganberak, Alemaniaren kasuan *Bundesrat* edo Senatuak eta Espainiar Estatuaren kasuan ere Senatuaren bitartez egiten da lana, modu batera edo bestera, azpi-estatuaren iritzia jasotzen dutelarik bigarren ganbara hauek. Beste askotan, ordea, gaineratzen du Patricia Popelier irakasleak, ez da horrela.

Zentzu honetan, nahiz eta legeri europarraren arabera, Estatu bakoitzeko legebiltzarrek bi bozka izan Europar Legebiltzarrari begira, subsidiaritate eta proportzionalitate printzipioen kontrola egikaritzeko orduan, eta Estatu horren Legebiltzar sistema bi ganbaretakoa bada, ganbara bakoitzak bozka bat izango duen, argi dagoena da, azpi-estatuaren parte-hartzeak, bigarren ganbara honetan modu batera edo bestera ordezkaturia egon arren, oro har muga asko dituela Estatuko Legebiltzarren mesedetan.

Europar Batasunak, gai hau Estatu bakoitzaren bame antolakuntzako gaitzat jotzean "internal affairs" delakoa alegia, ez du, nahiz eta maila orokorreko errealitate erregionalen aldeko aldarri batzuk egin, bereziki huts egin zuen Itun Konstituzionalaren jatorrietatik⁴, oso jarrera aktiboa hartzen erregio hauen papera areagotze aldera.

4. Bereziki, Alain Lamassoure-ek eginiko txostena. Horrela zioen Gurutz Jauregik gai honi buruzko azterketa bat egitean: "Por eso, Lamassoure planteaba la necesidad de otorgar a las regiones un lugar propio en el texto constitucional europeo, lugar que luego debería ser complementado por el ordenamiento jurídico de cada estado. El informe Lamassoure cambiaba por tanto en este sentido la filosofía mantenida hasta el momento ya que incardinaba el hecho regional como una realidad propia de la Unión Europea, no como un asunto estrictamente interno de los estados. Y en ese sentido Lamassoure proponía el establecimiento de un ESTATUTO DE REGIÓN asociada a la Unión que sería aplicado a las regiones designadas por cada Estado y que conllevaría determinados derechos de participación y consulta en las políticas comunitarias, conllevaría el tener una representación específica en el seno del Comité de las Regiones, y conllevaría también el derecho a plantear conflictos de competencia frente a actos de la Unión. Esta solución hubiera servido, por ejemplo y entre otras cosas, para blindar el Concierto Económico".

Jarraian Patricia Popelier irakasleak, hiru adierazle hauek, Erresuma Batua, Alemania eta Belgikaren ikusmiratik aztertzen ditu, ikuspegi unitario edo zentralista, federala eta konfederala sailkatuz.

Guk lan hau Mikel Irujo eta Francisco Javier Flórez autoreek esanikoarekin osatuko dugu.

3. Ikuspegi desberdinak: unitarioa edo zentralista, federala eta konfederala

3.1. Ikuspegi unitarioa edo zentralista: Erresuma Batua

Patricia Popelier irakaslearen hitzetan, Erresuma Batua Estatu unitario eta zentralista baten prototipoa da eta ondorioz erakunde azpi-estatalekin harremanak eta kontsultak badauden arren, azken erabakia beti, bere osotasunean, Estatuarena da. Horrela gertatzen da lehenengo zein bigarrenengo adierazlearekin.

Mikel Irujoren hitzetan, 1998an “Gales, Eskozia eta Iparraldeko Irlandari dagozkien botereen itzultze-prozesua” hasten da, “Devolution” delakoa. Eskozia, Iparraldeko Irlanda eta Gales-eko gobernuaren legeen bidez, hau da, Estatu deszentralizatu egiten da. Eskoziak oso autonomi zabala lortzen duelarik. Hala ere, Francisco Javier Flórezek adierazitakoari jarraituz, Patricia Popelier irakasleak esanikoarekin bat eginez, “Devolution” delakoaren ostean, ustea Estatu zentralak, azpi-estatuaren gainean, Eskozia, Gales eta Ipar Irlanda alegia, botere erabakigarria gauzatzen duela da.

Europar Batasunarekiko koordinazioari dagokionean, berriro Mikel Irujok diotenari jarraituz, hiru zatitan banatzen da, koordinazioa. Horrela, Erresuma Batuko gobernuak “Europako Batasunaren erabaki hartzean ahalik eta modu zuzen eta osoenean sartu nahi ditu” Erresuma Batua osatzen duten errealtate erregionalak.

Parte-hartzea elkarrekiko errespetuan eta bi gobernuen konfidentzialtasun eta diskrezioan oinarrituko da.

Bost alorren bitartez gauzatzen delarik: (1) Informazio-hornidura, (2) Erresuma Batua politikaren adierazpena, (3) Europar Batasuneko Ministroen Kontseilura bertaratzea, (4) Europar Batasunaren betebeharren inplementazioa eta, azkenik, (5) Arau-hauste jardunbideak.

Banan-banako azterketa azkar batetan ondokoa esan genezakegu:

Informazio-hornidurak partaide diren gobernu guztien artean koordinazio ona egoteko lagundu behar du.

Erresuma Batuko politikaren adierazpenean aldiz, bereziki, Eskozia eta Gales-eko ministro edo funtzionarioek ere parte hartuko dute, zenbait koordinazio-prozedura eta lan-batzorde ezartzen ditu.

Mikel Irujok esanikoari jarraituz, Kontseiluan Eskozia eta Gales-en joate edo egote zuzenari buruz honako hau esaten du Erresuma Batu mailan harreman hauek eraentzen dituen Konkordatuak: “autonomia-administrazioetako ministro edo goi-karguek paper nabarmena izango dute Kontseiluaren bileretan eta europar kideekiko beste negoziatioetan”. Hala ere, Erresuma Batuko gobernuak “kasu-

kasu” aztertuko du beraien parte-hartzea. Edozein kasutan Konkordatu honek garbi uzten du, denek “talde bat” bezala jokatu behar dutela.

Bestetik, Eskozia eta Gales-ek Brusela-n duten ordezkariak ere kontuan hartzen da, esaten baitu biek britainiar ordezkariak iraunkorren barruan ordezkariak izan ditzaketela, edo ordezkariak bat sortu. Hala Eskozia-k nola Gales-ek bulego bana dute. Bulego hauek “europar instituzioen aurrean Erresuma Batuaren ordezkariak duen Ordezkariak Iraunkorrekina estuki lan egingo dute” Konkordatuaren arabera.

3.2. Ikuspegi federala: Alemania

Patricia Popelier-en ustetan, Alemania da ikuspegi federalaren prototipoa. Itunen onarpenari begira *Bundesrat* edo Senatu indartsu bat du zeina *Länder*-en gobernuen ordezkariak dagoen osatua non *Länder*-ek Alemaniaren Europar Batasunaren posizionamenduarekiko euren iritzia emanaz, posizionamendu hau zehazten duten.

Ministro Kontseiluan parte-hartzeari dagokionean berriz, *Länder*-en eskuduntza eskusibokoak diren gai batzuetan, hauek hartzen dute parte Alemania osoaren izenenean. Besteetan Alemaniako ordezkariarekin batera hartzen dute parte, oro har, *Bundesrat*-ean zehaztutako posizionamendurekin bat.

Mikel Irujok diotenari berriro eutsiz, Oinarrizko Legea eta 1993ko martxoaren 12ko Europako Batasunari dagozkion arazoetan *Länder* eta Federazioaren arteko lankidetzak Legearekin bat, *Länder*-ek Europar Batasunari dagozkion gaietan *Bundesrat* edo Senatuaren bidez parte hartuko dute.

Länder-en bi parte-hartze mota desberdinak behar dira, lehenengoa orokorrean bere interesei dagokienean eta bigarrena soil-soilik beraiena den eskuduntzako gaiei dagokienean.

Lehenengo kasuan parte-hartzea gobernu federalaren esku egongo da, bigarrean aldiz, lurralde-erakundeek parte hartzeko betebeharrak konstituzionalak izango dute.

Europar arloko arau edo prozedurek *Länder*-en interesak eragiten dituztenean Federazioak kontuan hartuko du hauen jarrera, baina prozedura edo arau hauek batez ere legegintza-eskuduntzei eragitekotan, Federazioak hauen iritzia araberak jokatu du.

Länder-en eskuduntzak beraienak eta ez beste inorenak direnean interesen defentsa “Estatu federaletik Kontseilu Federalak izendaturiko *Länder*-etako ordezkari batengana pasatuko da”.

Atal honek *Länder*-en europar instituzioetan parte-hartze zuzenaren gakoak ematen ditu.

Länder-ak dira gobernu federalari ordezkariak egotea eskatu behar diotenak, eta honek, interesekiko eraginaren kasuetan “ahal duen neurrian” *Länder*-etako ordezkariak sartuko ditu egiten ari diren negoziazioetan.

Baina Europar Batasuneko delako proiektuak legegintza-eskuduntza eskusiboek eragitekotan, gobernu federalak segituan *Länder*-etako ordezkari bat eskuordetuko du bilera guztietan negoziazioen buru bera izateko, baita Kontseilukoetan ere, noski.

Azkenik, 1958tik Alemaniak europar instituzioen aurreko alemaniar ordezkartzen “*Länder*-en begiralea” deritzona dauka.

Honen bidez *Länder*-ek Ordezkaritza Iraunkorra prestatzeko bilera guztietan parte hartzen dute, baita Kontseiluaren erabaki hartzeetan ere.

Europar Batzordearekin ere harreman zuzena bermatzen dute. Hau guztiaz gain ezin dugu aipatu gabe utzi, *Länder* hauek *lobby* mailan egin dezaketean lan guztia, zeina askotan, bileretara joatea baino askoz ere garrantzitsuagoa den.

Francisco Javier Flórez Turradok esanikoarekin bat ordea, eta ondorio gisa, germaniar federalismo lehiakorrek gerotako zailago du bere simetriaren baitan *Länder*-en arteko asimetriari erantzutea, une honetan gogoeta sakon batetan aurkitzen delarik. Zeinak *Länder* hauek Europar Batasunarekiko duten harremanean, eragin zuzena izango duen.

Horrelaxe argudiatu zuen, saiakera honen jardunaldietan, Bavierako Philipp Stiel jaunak, laburbilduz esatean sistema federal batek funtzionatu dezan funtsezkoa dela maila federal eta *Länder*-en artean komunikazio tresna eraginkor bazuk izatea, azpimarratuz elkarrekiko leialtasun instituzional printzipioa.

Zeinaren funtsa, identitate propioa duten errealitate erregional edo nazionalerako errespetuan dagoen Estatu federala zalantzan jarri gabe.

Bere ustetan oreka honen funtsa, Bavierak Alemaniaren parte izateko duen borondatean dago.

Leialtasun eta elkarrekiko errespetu asko beraz, aldi berean ulertuz, ez adostasunak beharrezkoak direla, bi aldeentzako gustukoa izango den irtenbide oro biltzeko.

3.3. Ikuspegi konfederala: Belgika

Patricia Popelier-en ustetan ikuspegi konfederal garbiena Belgikakoa da, non azpi-estatuek, arestian aipatu moduan, euren eskuduntzen eremuan Nazioarteko Itunak izenpetzeko ahalmena duten.

Ondorioz, lehen adierazleari dagokionean, alegia Europar Batasuneko Itunak onesteari dagokionean, Belgikako Legebiltzarraren onarpena ezik, errealitate erregional diren azpi-estatuen, kasu Flandria eta Walonia, Legebiltzarren onespena behar harko litzatekeen, hauek Estatuko Legebiltzarrarekiko beto eskubide bat egjkaritu dezaketelarik, “*In foro interno, in foro externo*” printzipioaren baitan. Alegia, errealitate erregional hauek barnera begira dituzten eskuduntzek, kanpora begira ere isla berbera izango dute.

Bigarren adierazleari dagokionean, hau da Europar Batasuneko Ministroen Kontseiluan parte-hartzeari dagokionean, erregela orokorra, aurrez aipatutako printzipioaren baitan, azpi-estatuetakiko ordezkariak parte-hartzea da, beti ere euren eskuduntzen eremuan. Gai mistoak direnean aldiz, ordezkartza ere mistoa izango da.

Mikel Irujori jarraituz, Belgikak europar instituzioen aurreko bere errealitate erregionalen edo eskualdeen (Flandria, Walonia eta Brusela hiriburua) ordezkartza zuzenaren kasurik garatuena agertzen du.

Alemanian gertatu zenaren antzera, belgikarrek 1993an beraien Konstituzioaren nazioarteko harremanei buruzko aldaketa sartu zuten europar instituzioen aurreko eskualdeen ordezkariak zuzena errazteko. Estatuaren federalizazioa ekarri zuten (denborarekin konfederalizazio bilakatu dena) beste aldaketa sakon batzuk ere egin zituzten, beti ere, Alemanian bezala, gaur egun zalantza koagoa den "leialtasun konstituzionala"-ren baitan.

Belgikan, 3 komunitate, (frantziarra, flamenkoa eta germaniarra); 3 eskualde (Walonia, Flandria eta Brusela hiriburua eta 4 hizkuntza eskualde (frantziarra, holandarra, germaniarra eta Brusela-ko hiriburuko elebiduna) ditugu.

1994an eskualde eta gobernu federalaren artean lankidetzak akordio bat sinatzen da.

Jean Luis Van Boxtael izeneko irakasleak lankidetzak akordio hau hiru printzipiotan banatzen du: ministro bakarraren printzipioa, ordezkariak boterearen banaketa eta txanda birakari baten antolaketa.

Printzipioz eta akordio honek dioenez, ministro bakar batek ordezkariak ditu belgikarren boto eta aulkia Kontseiluan, baina ministro aholkulari batek lagunduta egon daiteke. Aholkulari honek ordezkariak lagundu eta informazioa eman behar dio eta horrela baimentzen badiote hitza har dezake. Dena den, inportanteena da Flandria edo Walonia-ko ordezkariak Kontseiluaren bileretan zuzenean egon daitezkeela.

Ordezkariak boterearen banaketari buruzko printzipioari dagokionez, azpimarratu behar da lau eskuduntza-maila desberdintzen direla.

Lehenengoa gobernu federalaren eskuduntza eskusiboek osatzen dute, bigarrena osatzen duten gaitan Kontseiluko ordezkariak federala izanik aipaturiko "aholkulari" horietako batez lagunduta egoten da, hirugarrena Kontseiluei dagokie non estatua ordezkariak dutenak eskualdeak diren eta eskualde horiei gobernu federaletako aholkulari batek laguntzen dien, eta, azkenik, laugarrenean zerranda bat dago non estatua ordezkariak baimenduak dauden bakarrak eskualdeak diren, euren eskuduntza eskusiboetan hain zuzen ere.

Hirugarren printzipioak txandakako ordezkariak antolaketaz hitz egiten du. Belgikako eskualde eta komunitateak zuzenki ordezkariak izateko txandakako sistema korapilatsua sortzen da, non europar lehendakariak bakoitzaren agintaldian aholkulariak belgikar eskualde eta komunitateen artean banatzen diren, hau da, Brusela Hiriburua, waloiar eta flandestar eskualdeen artean eta waloiar eta flandestar komunitateen artean.

1994ko Akordioak, erabakiak hartzeko koordinazio-sistema bat ere sortzen du.

Horrela, Europar Batasuneko Kontseiluan erabaki bat hartu baino lehen, Kanpo-arazoetarako Ministerioko Europar Arazoetarako Zuzendaritza arduratzen da jarrerari buruzko koordinazio-prozedura hasteaz. Atariko bilera hauetan akordiorik ez badago, arazoa kanpo-politikako ministerio arteko batzar batera bidaltzen da.

Printzipioz eskualdeen iritzia babes-maila oso altua da eta estatuari ez zaio bere nahia inposatzeko ahalmenik onartzen. Erabakietan adostasun politikoa da nagusia. Egia da ez dela beti erreza izaten.

Azkenik, bai waloiar eta flandestar komunitateek, bai hiru eskualde administratiboek 1988tik Europar Batasuneko aurreko Ordezkaritza Iraunkorrean agregatu bat dute.

Francisco Javier Flórez-ek berriz sistema konplexu hau dela eta Belgika erronka politiko eta juridiko handi baten aurrean dagoela dio.

Zentzu honetan, jardunaldi hauetan Flandria eta Belgikaren arteko harremanak aztertu zituen David Crieckemans-ek, Patricia Popelier-en unibertsitate ki-deak, argi utzi zuen Belgikako Estatuako gobernu guztien artean parekotasun bat dagoela. Gobernu Federala ez delarik nagusitzen.

Ondorioz euren artean negoziaketa tekniko-politiko luze bat eman behar da, Belgikako Estatuaren posizionamendu komuna finkatzeko adostasuna bilatuz. Eta ez bada lortzen, ez dago posizionamendu komunik. Koordinazio gune konplexu batetan gaude beraz, maila anitzeko eta alde askotariko gobernu eredu propio batetan.

Azkenik, aipu berezi, aparteko eta hiru ikuspegiekiko bateratua egin nahi diogu subsidiariedade printzipioari.

Horrela, oro har subsidiariedade printzipioaren zaintza azpi-estatuak legebiltzarren aldetik, Estatu konposatuaren bigarren ganbararen baitan ematen da. Alemania izan daiteke adibide esanguratsua.

Hala ere, Patricia Popelier-en hitzetan Flandriako Legebiltzarra ezik, azpi-estatuak Legebiltzar gutxiak egikaritzen dute eraginkortasun ahalmen hau, garaizko alertaren mugak, bereziki denborazkoak, asko baitira Patricia Popelier irakaslearen ustetan.

3.4. Hiru kasuen azterketaren ondorioak

Horrela, Erresuma Batuko ikuspegi unitario edo zentralista albo batera utziz, Alemaniako izan daiteke lankidetzaren modu integratu eta eraginkorra, nahiz eta *Länder*-en arteko diferentziak gero eta handiagoak diren, lehiakortasun kooperatiboko alemaniar sistemaren kaltetan.

Belgikako kasuan aldiz, kooperazio sakonago baten aldeko hautua egiten du Patricia Popelier irakasleak.

Bere uste apalean, eta ondorio gisa, maila anitzeko gobernantza ereduaren arrakastaren giltza, lankidetzaren mekanismoak areagotzean baitago.

Argi dagoelarik, iritzi pertsonal konpartitu gisa ere, borondatea badago, ia dena posiblea dela.

4. Estatu espainiarraren kasua

Segidan eta ekarpen propio gisa, Enoch Alberti Rovira irakaslearen eskutik, Estatu espainiarraren kasua aztertuko dugu.

Auzitegi Konstituzionalak argi utzi du zuzenbide europarraren ezarpena, beharrezko fasean, barne eskuduntza duenari dagokiola.

Gorako faseari dagokionean aldiz, nahiz eta autonomia instituzional printzipioaren baitan, errealitate erregional edo nazionalen (horrela jasotzen du Espainiako Konstituzioak berak) parte-hartzea, Estatu espainiarrekoa kasu, Estatu bakoitzaren kontua den, ez da ahaztu behar Lisboako Itunak eta bereziki bere has-tapenek eta hauen artean Konstituzio Itunak, aurrez azaldu moduan, hein batean sartu zutela erregioen gaia Europako agendan.

Nahiz eta egun, krisi finantziero, ekonomiko, sozial eta politikoaren ondorioz, lehenetsunetatik erori den, gai hau, berriro ere Estatu kide bakoitzaren barne gaitan sartuz.

Edozein kasutan, Lisboako Itunak bi parte-hartze motentzako bidea ireki zuen.

Bat barnekoa, Estatu bakoitzeko Konstituzioen araberrakoa, Estatu beraren Europar Batasunarekiko posizionamenduan eraginez eta bestea berriz zuzena.

Hau da, Europar Batasunean zuzeneko parte-hartzea ahalmentzen duena, zeina, gora beherak gora behera eta etorkizunera begira ere, egitate erregionalak eremu europarrean izango duen garrantziaren lekuko den. Europar Batasunak gi-zarte legitimazioan irabazi nahi badu behintzat.

4.1. Zeharkako (edo barneko) parte-hartze sistema estatu espainiarrean

Esan bezala, gaur egun eta nagusiki errealitate erregionalen parte-hartzea gai europarretan Estatu bakoitzaren borondatea gertatzeko prozesuen baitan ematen da. Bide hau jarraitu du Estatu espainiarrak ere nahiz eta beste Estatu batzuk ez bezala (Alemania, Austria edo Italia) ez zaion parte-hartze honi maila konstituzionala eman.

Horrela, 2/1997 Legeriaren bidez “Conferencia para Asuntos Relacionados con las Comunidades Europeas” (CARCE) delakoa erakundetzen da, gorako zein beherako parte-hartze faseetarako.

Hiru dira Konferentzia honen eskuduntza auresupostuak:

- a. Estatuarenak eskusiboak diren eskuduntzen eremuan Estatuari bakarrik eragiten dioten gaien aurrean, Erkidego Autonomoek eskatuz gero, hauek informatu premia.
- b. Erkidego Autonomoen eskuduntza legegile eskusiboen eremuan, hauen alderdi nagusiei eragiten dieten gaiak dagokionean, Estatuak konprometitzen da, Erkidego Autonomoek euren artean adosten duten postura modu erabakigarri batetan kontutan izatea, Europar Batasunaren aurrean jatorrizko postura finkatzerako orduan.
- c. Auresupostu nagusia: eskuduntza konkurrente eta partekatuen aurrean gaudenean alegia. Adostasuna egonez Erkidego Autonomoen eta Estatuaren posizioen artean, Estatuak modu erabakigarri batetan kontutan izango du adostasun hau, Europar Batasunaren aurrean jatorrizko postura finkatzerako orduan.

Estatu zentralaren nagusitasuna azpimarratzeaz aparte, ereduaren gabeziak ordea nabarmenak dira Enoch Alberti Roviraren ustez, bereziki CARCE honen ater-

kipean aurkitzen diren Atal-ezkako Konferentzien funtzionamendu heterogeneo eta irregularragatik batetik eta bestetik CARCE berak ez duelako hartu inolako paper aktiborik, Espainiar Estatuaren kasuan Erkidego Autonomoek Europar Batasunaren zuzenbidearen egituraketan parte-hartu dezaten.

Honi, Erkidego Autonomoen arteko lankidetzaz horizontaleko mekanismoen gabezia gehitu behar zaiolarik, hauek elkarren artean adostasunetara iritsi daitezkeen, ondoren Estatuarekin irekiko diren negoziaketetan posizionamendu komun bat gertatzeko, Europar Batasunaren aurrera eramango dena.

4.2. Parte-hartze zuzena Europar Batasun mailan

Ikusi dugun moduan, errealitate erregionalen edo nazionalen parte-hartze zuzen hau, hiru mailatakoa izan daiteke Enoch Alberti Rovira irakasleari jarraituz:

1. Kontseiluko Estatuaren Ordezkaritzetan parte-hartzea.

Arestian ikusi dugun moduan, aukera hau hainbat Estatuatan ahalbideratu da. Hala nola, Alemania, Austria, Belgika edo Erresuma Batua bertan (nahiz eta kasu honetan inolako lege aurreikuspenik gabe) Eskozia, Gales e Ipar Irlandara begira.

Estatu espainiarrean aldiz, aipaturiko CARCE delakoan hartutako bi akordioak arte, 2004ean hain zuzen ere, ez zen Erkide Autonomoen parte-hartzea arautu.

Ordutik aurrera, Estatu Ordezkaritzetan parte-hartzen duten Erkidego Autonomoen ordezkariek Erkidego ororen ordezkaritza hartu beharko dute batetik eta beti Estatuko Ordezkaritza buruak baimendua, izan beharko du posizionamenduak.

2. Batzordean parte-hartzea.

1997a geroztik posible da Batzordea laguntzen duten hainbat gobernuarteko komiteetan parte-hartzea.

3. Erregioen Komitean parte-hartze kolektiboa.

Hasteko bere funtzioa ez da loteslea eta nahiz eta Lisboako Itunaren ondoren bere papera garrantzitsuagoa izan, bere eskumenen eremuan, Europar Batasuneko Justizi Auzitegiaren aurrera jotzeko legitimazio aktiboa baitu, bereziki subsidiaritate eta proportzionalitate printzipioa betetzen ez denean, Komite honek muga asko ditu.

Azken finean elkarren artean zerikusi gutxi duten erakunde erregional eta tokikoen arteko *totum revolutum* baten aurrean baikaude, non Estatu askoren toki erakundeen aldeko jarrera nabaria izan den, egitate erregional edo nazional bereziak estali nahian, hauetan hartzen duelako zentzu argia, besteak beste, subsidiaritate eta proportzionalitate printzipioek.

4.3. Espainiar estatuko belaunaldi berriko estatutuak eta hauen erantzua Europar Batasunarekiko

Juanjo Álvarez jarraituz, hainbat prentsa artikuluetan adiearazi izan duen moduan, lanaren estadio honetan beharrezkoa ikusten dugu Estatu espainiarrean eman diren belaunaldi berriko Estatutuei aipu txiki bat egitea, hauetan Europar Batasuneko parte-hartzea nola eraentzen duten ikusteko.

Horrela, kronologikoki zerrendatuz, Comunitat Valenciana, Catalunya, Illes Balears, Andaluzia, Aragoi, Castilla-Leoi eta Extremadurako Estatutuek, oso ikuspegi erakargarria eskaintzen diote Erkidego Autonomoen kanpo harremanen dimentsioari oro har eta bereziki, Erkidego hauek Europar Batasunarekin izan beharreko harremanen eraentzari.

Horrela eta oro har, aurreikuspen estatutario berriek, Erkidego Autonomoen parte-hartzea ahalbideratzen dute euren eskuduntza propioei dagozkien nazioarteko itunetan; alde-biko itunak izenpetzea ere ahalbidetzen dute; Estatuaren aldetik informazioa jasotzeko eskubidea ere jasotzen dute Europar Batasuneko Itunak berrikusi behar direnean; baita Europar Batasunaren aurrean Estatuak hartu behar duen jarreraren formakuntzan parte-hartzeko eskubidea ere; alde-bikotasuna ere aitortzen zaie Erkidego Autonomoei jarrera hau zehazterako orduan Erkidego Autonomoen eskuduntzez ari garenean; baita europar erakunde eta organoetan parte-hartze zuzena ere; nola ez subsidiaritate eta proportzionaltasun printzipioen kontrola; Europar Batasuneko zuzenbidearen ezarpena euren eskuduntzen eremuan; funts europarren kudeaketa zuzena eta azkenik baita Europar Batasuneko Justizia Auzitegira jotzeko aukera ere, Europar Batasunak aurreikusten duen moduan.

Honekin batera, “kanpo harremanen” eremu horretan, aurrez adierazitakoaz gain, aipamen berezi bat egiten zaio muga-gaindiko eta erregio arteko eta Erkidego Autonomo horietako hainbat antolakuntzaren nazioarteko proiektioari.

5. Euskadira begira zer?

Bukatzeko eta tarte txiki batean Euskadira begiratzuz, ez da ahaztu behar aipatu berri ditugun, beste Erkidego Autonomoen potentzialtasun hauek kontutan hartu beharko direla, Estatus Juridiko Politiko berria gauzatzerako orduan.

Horrela, Gurutz Jauregi irakaslearekin partekatutako lan baten eginiko gogoeta pertsonal batzuekin bukatzen dut.

Euskadirentzat ezinbestekoa da Europar Batasuna bezalako foroetan zuzeneko parte-hartzea izatea. Gorako zein berako faseetan. Euskadiren eskuduntza maila bi fase hauetan oso ukitua gerta baitaiteke Kontzertu Ekonomikoarekin gertatu zen moduan, bere egokitze europarrari zegokionean.

Zentzu honetan parte-hartzea, besteak beste, ondoko ardatzetan gauzatu beharko litzateke:

- Europar Batasunarekiko Euskadiren parte-hartzea bermatu Estatuaren bozordatearen formakuntzan bai multilateralki, Senatua eta Atalezko Konferentzien bidez, zein alde-bikotasunez zuzenean Estatuarekin negoziatuz.
- Euskadiren ohiko parte-hartzea bermatu Estatuko Ordezkaritza Iraunkorrean, bai Kontseiluan, bai “Comité de Representantes Permanentes de la Unión de los Estados miembros” COREPER delakoan, zein Kontseiluaren komite eta lan talde desberdinetan Euskadiren eskuduntzako gaiak tratatzen direnean.

- Estatuko Ordezkaritzaren esku-ordez Estatuaren Ordezkaritza gauzatu, Europar Batasuneko Itunak dioenari jarraituz.
- Europar Zuzenbidearen ezarpena onartu, bideratu eta gauzatu bere esku-duntzen eremuan.
- Zabaldu eta bermatu Euskadiren parte-hartzea, Estatuaren jardueren baitan, Europar Batasuneko Justizi Auzitegiaren aurrean.
- Erraztu eta indartu Euskadiren presentzia zuzena Europar Batasunaren bestelako foroetan, bereziki Euskadiren antzeko estatu-erregioek parte-hartzen dutenean.

Ikusten den moduan, Lisboako Itunaren ostean, Europar Batasunak egitate erregionala Europar agendan, aho txikiarekin bada ere jarri nahi izan zuen arren, egia borobila da ere, egun ez dagoela lehentasunen artean. Eta ikusi dugun moduan, Estatu bakoitzari dagokio, autonomia instituzional printzipioaren baitan, Europar Batasunean errealitate erregionalen parte-hartzea bultzatzea edo ez.

Hala ere, eta edozein kasutan, egitea hobe, Europar Batasunaren proiektuak etorkizuna izatea nahi bada, oinarrietako bat bere legitimazio politikoa areagotzean baitago eta hau lortzeko faktoretako bat, zalantza izpirik gabe, erregio eta nazioen parte-hartzean egongo da, Europar Proiektuarekin, errealitate horietako hiritarrak identifikatzearen bidean.

Ziur bainago, Europa, Nazioen Europa den neurrian, izango dela Europar Batasuna.

Bibliografía

- ALBERTI ROVIRA, E. "Las regiones en el proyecto de nueva Constitución europea. Balance del papel de las regiones en los trabajos de la Convención", en E. Alberti (dir) y E. Roig (coord.), *El proyecto de nueva Constitución europea*, Tirant Lo Blanch, Fundación Pi Sunyer, Institut d'Estudis Autònoms, Valencia, 2004.
- ALBERTI E., ORTEGA, L., MONTILLA, J.A. *Las Comunidades Autónomas en la Unión Europea*, CEPC, Madrid, 2005.
- ALBERTI, E., FOSSAS M.A., CABELLOS. *El principio de subsidiariedad en la Unión Europea*, Parlament de Catalunya, Barcelona, 2005.
- ARES CASTRO-CONDE, C. *La participación de las regiones en el sistema político de la Unión Europea*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2010.
- DOMÍNGUEZ GARCÍA, F. *Las regiones con competencias legislativas*, IEA, Tirant, Valencia, 2005.
- FLÓREZ TURRADO, FJ. *¿Hacia un Estado Autonómico Desconstitucionalizado?* IVAP, Oñati, 2012.
- IRUJO AMEZAGA, M. "Lurralde erakundeen ordezkaritza-mekanismoak Europako instituzioen aurrean". *Euskonews&Media* (<http://www.euskonews.com/0191zkb/gaia19107eu.html>).
- LÓPEZ CASTILLO, A. "Creación y aplicación del Derecho Comunitario europeo", *Revista Española de Derecho Constitucional*, 12, 1992.
- MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J. "Comunidades Autónomas y Unión Europea: hacia una mejora de la participación directa de las Comunidades Autónomas en el proceso decisorio comunitario", *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, n. 22, 2005, pags. 759-805.
- . "Comunidades Autónomas y Unión Europea tras la entrada en vigor del Tratado de Lisboa. Sobre los riesgos de una reforma del Estado Autonómico sin reforma de la Constitución", *Civitas. Revista española de derecho europeo*, n. 23, 2010, pag. 45-90.
- MONTILLA MARTOS, J.A. *Derecho de la Unión Europea y Comunidades Autónomas*, CEPC, Madrid, 2005.
- MORENO VÁZQUEZ, M. *Comité de las Regiones y Unión Europea*, Polo Europeo Jean Monnet de Valencia, Tirant lo Blanch, Valencia, 2001.
- PÉREZ TREMPES, P. (coord.), CABELLOS ESPIÉRREZ, M.A., ROIG MOLES, E. *La participación europea y la acción exterior de las Comunidades Autónomas*, Marcial Pons – Institut d'Estudis Autònoms, Barcelona, 1998.
- ROIG, E. "Una perspectiva regional del debate sobre el futuro de Europa", *Revista de Estudios Políticos*, 119, 2003.
- . *Las Comunidades Autónomas y la posición española en los asuntos europeos*, Tirant lo Blanch-Institut d'Estudis Autònoms, Valencia, 2002.
- SAIZ, A. (dir) y ZELAIA, M. (coord.), *Integración europea y poder judicial*, IVAP, Oñati, 2006.
- SOBRIDO, M. *Las Comunidades Autónomas ante el Tribunal de Justicia y el Tribunal de Primera Instancia de las Comunidades Europeas*, Tirant lo Blanch – Universidad de La Coruña, Valencia, 2003.
- ZELAIA, M. *Las regiones ante el Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas*, IVAP, Oñati, 2005.